

Montehermosok “Etorkizun inperfektua(k) – Distopia eta zinea ” zinema-zikloa hartuko du

Donostia Kulturaren eta Euskal Filmotekaren lankidetzarekin antolatutako zikloak gizarte futuristak ditu gaitzat; abenduaren 14an hasiko da, Blade Runner filma proiektatuz, eta apirilaren 25era arte iraungo du

Datorren asteazkenean, abenduaren 14an, 19:30ean, “Etorkizun inperfektua(k) – Distopia eta zinea” izeneko zikloa hasiko da, Montehermoso kulturuneak Donostia Kulturaren eta Euskal Filmotekaren lankidetzarekin antolatua. Zikloari hasiera emateko Ridley Scottek zuzendutako Blade Runner (1982) proiektatuko da. Estíbaliz Cantok gidatzen duen Kultura Sailak Montehermosoren ikus-entzunezkoen arloa indartzeko egin duen beste apustu bat da.

Apirilaren 25era arte luzatuko da zikloa, eta 10 saio bilduko ditu. 1927. urtetik 2003. urtera bitartean egindako hamar film proiektatuko dira, zeinek oso modu desberdinetan heltzen baitiete distopien munduari.

Era askotako filmak hautatzea izan da asmoa, bai jatorriari bai ekoitzi ziren garaiari dagokienez. Gainera, gero eta hedatuagoa eta hurbilagoa dugun distopiaren kontzeptura egin duten hurbilketa hartu dugu kontuan, batik bat XX. mendearen lehenengo erdian sakonetik heltzen hasitako gaia izan baitzen bi mundu gerrek utopiei azkena eman ondoren.

Lan hauek emango dira

- Abenduak 14 Blade Runner (1982). Ridley Scott. AEB. 117'
 - Abenduak 20 Metrópolis (Metropolis, 1926). Fritz Lang. Alemania
 - Urtarrilak 24 Rebelión en la granja (Animal Farm, 1954). John Halas, Joy Batchelor. Erresuma Batua
 - Urtarrilak 31 El proceso (Le Procès, 1962). Orson Welles. Frantzia-Italia-AEF
 - Otsailak 7 El señor de las moscas (Lord of the Flies, 1963). Peter Brook. Erresuma Batua
 - Otsailak 21 Lemmy contra Alphaville (Alphaville, une étrange aventure de Lemmy Caution, 1965). Jean-Luc Godard. Frantzia-Italia
 - Martxoak 7 Fahrenheit 451 (1966). François Truffaut. Erresuma Batua
 - Martxoak 21 El dormilón (Sleeper, 1973). Woody Allen. AEB
 - Apirilak 11 1984. Michael Radford. Erresuma Batua
 - Apirilak 25 El tiempo del lobo (Le Temps du loup, 2003). Michael Haneke. Frantzia-Austria-Alemania
- Sarrera librea lekuak bete arte / Proiektzioak jatorrizko bertsioan izango dira, gaztelarazko azpitoluekin.

Distopia eta zinema

Distopia (RAEren arabera): Etorkizuneko gizarte baten fikziozko errepresentazioa, giza alienazioa eragiten duten ezaugarri negatiboak dituen gizarte batena.

Distopia terminoak –politikari eta ekonomista britainiar John Stuart Mill-ek 1868an sortua– fikzio bat ematen digu aditzera. Fikzio horrek xehetasunez deskribatzen du gizarte futurista bat, zitala berez, non aurrerabide sozialean, teknologikoan, moralean jarria dugun sinesmena zeharo suntsituko baitute era guztietako gehiegikeriek eta abusuek, progresua lortu nahian aurrera eramandakoek... Hala eta guztiz ere, fikzio distopikoak ez dira bakarrik beren egileen irudimenak sortuak: deskribatzen duten etorkizun izugarria oraingoak eta egiazkoak diren ideiak edo arazoak denboran estrapolatzean datza, eta beraz, gure oraina ikuspegi kritiko batez aztertzeke balio digute.

H. G. Wells, George Orwell, Aldous Huxley, Karel Čapek edo J. G. Ballard bezalako idazleen legatutik abiatuta, ahalmen handiko diskurtso distopikoa eraiki du zineak artearen arloan izan zituen hastapenetatik oso gai polemikoei heltzean: autoritarismo politikoa; desberdintasun sozialak; autokrazia ekonomikoa; teknologiak giza bizitzan duen eragina; kulturaren degradazioa; sentimenduen galera; beldurra gerra nuklearrari, ingurumenaren narriadurari, menderatze ideologikorako tresnatzat erabilitako indarkeriari... Ahalmen handiko diskurtso bisual batez baliatu diren filmen unibertso trinko eta erakargarri honetatik itzal handiko zinemagile ugari igaro izan dira, haien artean, Fritz Lang, Ridley Scott, Stanley Kubrick, Jean-Luc Godard, Orson Welles, François Truffaut eta Peter Brook, batzuk aipatzearren.

Montehermoso acogerá el ciclo de cine “Futuro(s) imperfecto(s) – Distopía y cine”

Será un ciclo de cine, en colaboración con Donostai Kultura y Filmoteca Vasca sobre sociedades futuristas, que comenzará el 14 de diciembre con la proyección de Blade Runner y durará hasta el 25 de abril

El próximo miércoles, 14 de diciembre, a las 19:30, comienza el ciclo “Futuro(s) imperfecto(s) – Distopía y cine”, organizado por el Centro Cultural Montehermoso en colaboración con Donostia Kultura y Filmoteca Vasca, con la proyección de la película Blade Runner (1982), dirigida por Ridley Scott. Una nueva apuesta del Departamento de Cultura que dirige Estíbaliz Canto porque Montehermoso refuerce su faceta más audiovisual.

El ciclo, que se prolongará hasta el 25 de abril, consta de 10 sesiones, en las que se proyectarán diez títulos realizados entre 1927 y 2003 que abordan, de formas muy diversas, el mundo de las distopías.

La selección de películas ha pretendido ser lo más variada posible, tanto por el lugar de procedencia de los títulos y la época de producción como por su acercamiento al concepto, cada vez más extendido y cercano, de distopía, que se extiende básicamente en la primera mitad del siglo XX tras el fin de las utopías provocado por las dos grandes guerras mundiales.

Las obras proyectadas serán las siguientes:

- 14 diciembre à Blade Runner (1982). Ridley Scott. 117'
- 20 diciembre à Metrópolis (Metropolis, 1926). Fritz Lang. Alemania
- 24 de enero à Rebelión en la granja (Animal Farm, 1954). John Halas, Joy Batchelor. Reino Unido
- 31 de enero à El proceso (Le Procès, 1962). Orson Welles. Francia-Italia-AEF
- 7 de febrero à El señor de las moscas (Lord of the Flies, 1963). Peter Brook. Reino Unido
- 21 de febrero à Lemmy contra Alphaville (Alphaville, une étrange aventure de Lemmy Caution, 1965). Jean-Luc Godard. Francia-Italia
- 7 de marzo à Fahrenheit 451 (1966). François Truffaut. Reino Unido
- 21 de marzo à El dormilón (Sleeper , 1973). Woody Allen. EEUU
- 11 de abril à 1984 (1984). Michael Radford. Reino Unido
- 25 de abril à El tiempo del lobo (Le Temps du loup, 2003). Michael Haneke. Francia-Austria-Alemania

Entrada libre hasta completar aforo / Las proyecciones serán en versión original con subtítulos en castellano

Distopía y cine

Distopía (RAE): Representación ficticia de una sociedad futura de características negativas causantes de la alienación humana.

El término distopía –acuñado por el político y economista británico John Stuart Mill en 1868– alude a una ficción que describe pormenorizadamente una sociedad futurista indeseable en sí misma, donde nuestra fe en el progreso social, tecnológico, moral, ha sido totalmente destruida por toda clase de excesos y abusos perpetrados en aras del progreso... Sin embargo, las ficciones distópicas no son producto únicamente de la imaginación de sus autores: el futuro de horrores que describen se basa en una extrapolación en el tiempo de ideas o problemas actuales y reales, los cuales sirven para evaluar de manera crítica nuestro presente.

A partir del legado de escritores como H. G. Wells, George Orwell, Aldous Huxley, Karen Capek o J. G. Ballard, el cine ha construido un poderoso discurso distópico desde sus inicios como arte, abordando temas tan controvertidos como el autoritarismo político, las desigualdades sociales, la autocracia económica, el impacto de la tecnología en la vida humana, la degradación de la cultura, el quebranto de los sentimientos, el miedo a la guerra nuclear, a la degradación del medio ambiente, a la violencia como instrumento de dominación ideológica etc. Un denso y apasionante universo fílmico, equipado de un poderoso discurso visual, por el que han transitado cineastas de la categoría de Fritz Lang, Ridley Scott, Jean-Luc Godard, Orson Welles, François Truffaut, o Peter Brook, entre otros.